# 32/2020 ALKATETZA DEKRETUA

Covid-19ren hedapenak sortutako pertsonen osasunerako arrisku-egoera ikusita.

Osasun-arloan eta osasun publikoa babesteko arloan eskumenak dituzten erakunde ofizialek emandako gomendioak eta nahitaezko neurriak aztertu dira.

Neurri eta gomendio horien artean dago, ahal den neurrian, pertsonen arteko kontaktua saihestea, bai eta kontaktu hori nahitaezkoa den jarduera guztiak etetea ere.

Gaubeako Udalak zeharka ematen ditu zerbitzu eta jarduera batzuk, kontratuak esleituz, eta kudeaketa enpresa pribatuei dagokie.

Kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.m) artikuluan jasotakoaren arabera Alkatetzari dagozkion eskumenak, arrisku larriko kasuetan egokitzat jotzen dituen neurriak hartzeko, eta horren berri Udalbatzari berehala ematea; eta, 25.2.j) artikuluaren arabera, udalerriari osasungarritasunaren babesaren arloan dagozkion eskumenak.

HONAKO HAU EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- DEKRETU-Hainbat pertsona biltzen diren udal-jarduera guztiak beste agindu bat eman arte etetea. Liburutegia, Boveda eta Villanañeko gizarte zentroak eta kirol instalazioak itxita egongo dira.

Bigarrena.- Administrazio Batzordeen jabetzako gizarte-zentroak, kirol-instalazioak eta lokalak itxita egon beharko dira, beste abisu bat eman arte.

Kontzejurik ez egitea gomendatzen da.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Udaleko bitarteko guztietan jakinaraztea eta argitaratzea, eta dagozkion bandoak jartzea.

Laugarrena.- Ebazpen hau udal zerbitzuak emateko kontratuen esleipendun diren enpresa guztiei jakinaraztea.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.1.c artikuluarekin bat etorriz.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, ebazpen espresuaren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera, eta eskubideak hobeto defendatzeko egoki iritzitako beste edozein ekintza edo errekurtso aurkezteari kalterik egin gabe.

Gaubea, 2020ko otsailaren 13a.